

Zaborreria nahas-mahas

Euskaldunon Egunkaria.

Amaitu dira hauteskundeak, eta baditugu esperuan geunden emaitzak. Ez denak denon gustokoak, baina bai aldi baterako egiatan aginduko dutenak. Euskal Herriren hautaketa honetan zabaldu da zaborra, goitik behera, ezker eskuin; erabili dira kontraesanak lotsarik gabe, zabaldu egi mingarriak, gezur gaiztoak, dena kontrarioa umiliatzeko, eroria badago zapaltzeko. Denetik ikusi dugu borroka kupigarri honetan. Zaborreria asko gure artean. Eta gure hau nahiko ez dela Madrileko zaharrak etorri zaizkigu bere lapurreta, iruzur, gezurrezko porrotketa eta guzti. Azkeneko Las Rosasen kasu harrigarria, eta bere emazteak prentsari negarrez, haurrak aita ikusi nahi dutela. Euskal presoenak ere merezi dute hainbeste. Dozenaka sinonimok adierazten dituztenak. Trapu zaharrak, tranpa berriak, sortzen dira eta lehengoak orain jarraitzen dutenez eta garbiketarik egiten ez, zikinkeria handitzen doa, kiratsa hedatzen. Madrileko sozialistak hamar urtetan egin ez duten garbiketa eskaintzen ari dira orain lotsagabe; eskuineko izen eta kirats zaharrak, frankismorainoko bidean, ustela dariola. Hainbeste salakuntza, irain, gezur eta faltsukeriaren ondorio honek garbi garbia den ezer ekarri ahal dezake? Ez dakit, eta hala ere aukerabide hau defendatuko dut beste hoberik aurkitzen den bitartean.